



# Kanposantuak Oñatin

**D**omu Santu eta Animen egunak pasau barri diran honetan, gure herrixan izan diran hillerrixen gaiñian zertxobait esatia egogi etorri leikiela pentsau xaku. Guk kanposantua Garagaltza auzuan, Urrutxu aldian, ezagutu dogu, eta gure guraso nahiz aittajaan-amandriak be bai. Baiña beti ezta hola izan. Garai batian hilledakuak eliza inguruan edo eliza barruan lurperaketan ziran, eta ohitura horrek luzaruan iraun eben. Arrazoi higienikuak zirala-ta, difuntuak elizetatik kanpora enterraitteko asmua eukain agintari politikuak XVIII. gizaldira orduko, baiña hori etzan XIX.aren hasierara arte gauzatu. Oñatin hiru parrokixetan lurperaketan ziran herrittarrak: kaleko San Migelen, Araozko San Migelen eta Urruxulako Andra Marin; baiña, parrokixia izan barik, Bidaurretako eliza barruan be sartu izan ziran hilledako oñatiarrak, hango zurezko sepulturak erakusten doskuen lez.

Eliza barrutik atarateko asmuori 1807ttik aurrera buruketan hasi zan. Kontuan izan bihar da hurrengo urtian Napoleonen inbasiñua heldu xakula eta giro nahasi haretan lurperatuko zittuain lehenengo hilledakuak Goribar auzoko Santa Katalina ermitta onduan moldau zan kanposantu barrixan. Itxuria danez, ha etzan hartarako oso leku aproposa: txikitxua, zabalketako aukera asko barikua, eta kamiño nagusittik ermittaraiñoako aldapa motza baiña gogorra eukana. 1850eko hamarkadan leku barri baten billaketari ekin otsain kontzejuko arduradunak. Azkenian Garagaltza auzuan moduketia pentsau zan, San Juan ermittia eta Urrutxu baserrixaren artian daguen pendiz xuabe antzeko horretan. Santa Katalinako kanposantu zaharraren aurrez-aurre, hain zuzen be. Etzan obra makala izan: 1863tik aurrera, lur-zatixaren aukeraketia eta erosketia erabagi ziran; pittinka igoten eben bide-arbolada bat egin zan ospital-unibersidadetik aldetik goraiño; eta lur-sail horren mugen barruan hillerri barrixa eraiki zan, Pedro Belaunzaran arkitektuaren ardurapeian.

Dana dala, obrak etziran berihela akabo, bestiak beste, tartian azkenengo karlistadako gerratia egon zalako. Erdiko bi kale nagusixenak alkarketan diran ardatzian harenarrizko kurtze haundi bat jaso zan, oiñeko lau aldetan esaldi honeik dittuala orduko ortografian: *Becatuaren ondorena gurutzetic salvamena / Gorputza emen baida zarima nun ote da? / Año 1875 / Eriotza beti buruan saria guero ceruan*. Seguru, asko Oñatiko leku publiko batian egindako euskerazko inskripziñorik zaharrenetarikuak izango dira. Estilo neoklasikuan eraikittako ate-sarrerria eta parian gorago daguen kapillia, berriz, 1880xan jaso ziran, Casto Zabala eta Pedro Jose Astarbe arkitektuen planuen arabera. Urte hareittan jarrittako hillobi banaka batzuk geldiketn dira oraindiok kapilliaran ezker-eskumetan eta beste tokiren batian.

Kanposantu barri hori ehun bat urtian errendidu zan neurri horrein barruan. Baiña 1966xaz ezkeroko ekin xaten eskumaldeko zabalketa-lanairi; eta 1974tik aurrera ezkerrekoaldekuari, hainbat epetan burutu zana. Gaurko fotografixia 1983ko Domu Santuko egunekua da eta obren azkenengo epiaren inauguraziñuari dagokixo. Bertan agiri dira elizako agintarixak, parrokixako koruko kantoriak, hainbat oñatiar eta gorago aittatu dan kurtzia euskerazko idazkixakin.

J. E.

Argazkixa Andres Arlanzonek ataratakua da eta Oñatiko Udal Artxibuan gordeten da. Eskerrak emun biharrian gagoz Izar Salaberriri eta Xabier Zelaiari eskuratu doskuen argibide eta samurtasunengatik.